

ZUMAIAKO UDALA

GIPUZKOAKO PROBINTZIA

2004KO UZTAILAREN HOGEITABIAN UDAL PLENOAK EGINDAKO EZOHIZKO BATZARRALDIKO AKTA.-

Zumaiako hirian, bi mila eta laugarren urteko uztailaren hogeitabian, arratsaldeko zazpiretan, Udaletxe honetako Biltzar Aretoan, Udal Plenoa eratu da ezohizko batzarraldia egiteko asmoz, aurrez izendatutako eguneko aztergaiari jarraituz. Eta garaiz eta eraonez deituak izan zirelarik, ondorenean aipatzen diren udal bazkideak etorri ziren:

LEHENDAKARITZA.-

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA Anderea.

ZINEGOTZIAK.-

Asier ESNAL ALBIZU Jauna.
Manuel ZUBIA ARTABE Jauna.
Lide AMILIBIA BERGARETXE Anderea.
Mikel OLAIZOLA ELOSUA Jauna.
Andoni ETXANIZ OSA Jauna.
Joseba Josu ASPIAZU AZKARRAGA Jauna.
Mikel GARATE GOLMAIO Jauna.
Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA Jauna.
Abel YEREGUI SASIAIN Jauna.
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ Jauna.
Paloma HEREDERO NEGREDO Anderea.
Cristina FORCADA UNANUE Anderea.

IDAZKARIA.-

Miren ETXEZARRETA GARMENDIA.

1.- MOZIOA EB-IU: GIZARTE LARRIALDIKO DIRULAGUNTZAK

Mozioak honela dio:

ezker batua

Denbora dezente daramagu administrazioen arteko haserre giroan (Udalek, Foru Aldundiek era Eusko Jaurlaritzak), azken horrek udalei dlru gutxi eman baitie modu egokian eta legearen arabera Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL jasotzen dituzten pertsonen premiak asetzeko.

Laguntza horiek arrazoi pertsonalengatik egoera ekonomiko larrian dauden pertsonen gutxieneko gastuak ordaintzeko erabiltzen dira.

Administrazio publiko ororen betebeharra da ezer ere ez duten pertsonentzat laguntzak eskaintzeko egiturak sortzea, herritarren ongizatea zaintzea baita bere egitekoa. Eta betebeharrak ezin du oztoporik izan, ezta unean uneko aurrekontuaren mugak arazoitzat hartuta ere.

Eusko Jaurlaritzak dauka laguntza horiek finantzatzeko eskumena, nahiz eta Eusko Legebiltzarrean aurrekontu batzuk luzatu izanak pixka bat mugatu duen.

Horregatik, berehala aplikatu behar dira Gizarte Larrialdiko Laguntzak estaltzeko dauden diru-sailak eta berehala gainbegiratu behar da horiek arautzen dituen Agindua, konpontzen dituenak baino arazo gehiago sortzen baititu gaur egun.

Era berean, ezinbestekoa da Foru Aldundiek ere arazo honi irtenbideren bat bilatzeko saioa egitea eta beren lurraldeetan laguntzak osatzea, hartara, premia duten pertsona guztien eskaera onartu ahal izango baita.

Aipatutako guztia oinarrian izanda, udal talde honek ondorengoa aurkezten du:.

MOZIOA

- 1.- Zumaiako Udaleko udalbatzak euskal erakunde guztiei eskatzen die instituzioarteko hitzarmen bat sina dezatela, Gizarte Larrialdiko Laguntzarako nahikoa diru-sail bermatzeko.
- 2.- Zumaiako Udaleko udalbatzak Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Sailari eskatzen dio 2004ko martxoaren 18ko data indargabetzeko Agindua onar dezala, Gizarte Larrialdiko Laguntzek izaten duten gastu jakin bakoitzarengatik jaso beharreko gehienekoak aldatzen dituen, alegia; eta, beraz, eskatzen dio 2003ko Aginduan xedatutako gehienekoak mantentzala.
- 3.- Zumaiako udaleko udalbatzak Eusko Legebiltzarrari eskatzen dio diru-sail erantsi bat ematea onar dezala, urte amaierara arte GGL Gizarte Larrialdiko Laguntzak jasotzen dituzten pertsonen premiak asetzeko.

4.- Zumaiako Udaleko udalbatzak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio bere aurrekontu-sail bat eman diezaiola, gure lurraldeko Gizarte Larrialdiko Laguntzak osatzeko

5.- Udal honek , oro har udalek egindako finantzazio eskasa kontuan izanda Eusko Jaurlaritzak Gizarte Larrialdiko Laguntzetarako emandako diru-saila osatzeko konpromisoa hartzen du, betiere bere ahalmenen arabera

Mozioaren irakurketa amaitu ondoren EAJ-ren ordezkarietan Alkateak zera dio, giroari opor usaina darion honetan, labor erantzute arren, Ezker Batuak aurkezturiko mozioaren aurka bozkatuko dutela.

Oso ongi gelditzen da Udalak Gizarte Larrialdi egoeran daudenei Eusko Jaurlaritzak Gizarte Larrialdiko laguntzetarako emandako diru-saila osatzeko konpromezua hartzeko erabakia onartzea.

Baina Gizarte Larrialdiko Laguntzak arautzen dituen Legeak banatzen ditu erakunde arteko eskumenak eta zehazten ditu bakoitzari dagozkionak. Legearen arabera Gizarte Larrialdietako dirulaguntzak ematea Eusko Jaurlaritzari dagokio.

Nahiko buruhasute dugu gure eskumenak aurrera atera ezinik beste batzueri dagozkienetan sartu gabe.

Ezker Batua Eusko Jaurlaritzan dago, hirukoan partaide da, beraiek jakingo dute gaia nola bideratu.

Mozioan baieztapen potoloak jaurtitzen dira. Foru Aldundiak ere inplikatzeko ditu. Eztabaida sakonetan sar gaitezke.

Zumaiako Udalarik dagokionez esan, orain artean luzatu zaizkigun eskaerei erantzun diegula eta aurrekontuetan kontzeptu horretan izendaturik genuena agortu dugula.

Alderdiri luzaturiko hitz txandan **PSOE**-k Ezker Batuak aurkezturiko mozioaren alde bozkatuko dutela dio. Eusko Jaurlaritzak hanka sartzea egin du. Gizarte Larrialdietarako dirulaguntzen diru izendapena murriztu egin du, ondorioz zera gerta daiteke, dirulaguntza hauek eskatzeko baldintzak betetzen dituztenak dirulaguntzarik gabe gelditzea. Gai hau Gipuzkoako Batzar Nagusietan eztabaidatu zen eta zera erabaki zen, baldintzak betetzen zituztenei dirulaguntza bermatzeko diru izendapenak osatzeko konpromezua hartzea. Hau da mozioaren bostgarren atalean dioena.

Iruzurra ematea zaila da kontuan izanik laguntza hauek etxebizitzak ordaintzera zuzentzen direla, beraz etxebizitza ordaintzen da eta ez da jaten edo jaten da eta ez da etxebizitzarik ordaintzen.

E.A-ko bozemailearen hitzaldia, Gizarte Larrialdiko Laguntzen araudia eta legezko definizioaren berri emanaz hasten da. Zentzu honetan zera dio, Gizarte Larrialdien araudia apirilak 22ko 12/1998 Legeak eta apirilak 20 ko 199/1999 Dekretuak osatzen dutela.

Udaletxeeri dagozkien kreditu asignazioak, Inserzio Sozialeko Batzordean erabakitako irizpideen arabera eta Dekretu eta Aginduetan ezarritako araudi amankomun baten arabera finkatzen direla.

GLL-ak beste gizarte prestazio batzuen osagarri gisa izaten dira. (Oinarrizko errenta eta enpleguari bultzada).

GLL-a jasotzen duten %75-ak, aldi berean Oinarrizko errenta jasotzen du eta gelditzen diren % 25-ak, hirutik biek, 23 urtez beherakoak dira edo eta gutxienez urtebetez erroldatua izatearen baldintza ez dute betetzen.

Era honetan Profesioarteko Gutxieneko Soldataz gaineko sarrerak bermatzen dira.

Gizarte Eskubideen Gutunean, Oinarrizko Errenta, Profesioarteko Gutxieneko Soldataren %75-eko portzentaia bermatzean finkatzen da. Jaurlaritzako hiruko gobernuak konpromezu bat du portzentaia hau % 86-ra arte igoz joateko 2.006-rako.

GLL-ak aurreko kontzeptu hauetan jasotzen diren laguntzen osagarri dira, etxebizitzaren alokairua bultzatzeko. Baina ez dezagun ahanzi Oinarrizko Errenta dela gizarteratzeko sistemak oinarrizkotzat jotzen duen dirulaguntza.

GLL-en gaur egungo egoerari buruz zera esan behar da:

Urteko Onuradunen kopuruaren eboluzioa 2,76-ean biderkatu dela. Eta 2.003. urtean jasan duela igoerarik handiena % 20,7-ko igoerarekin.

Gastatu den diru kopuruari dagokionez: 2.003. urtean, Eusko Jaurlaritzak 24 milioi €erabiltzen ditu 2.002. urtean baino % 20 gehiago.

¿Zertan erabili da diru kopuru hau?

Funtsean etxebizitzaren beharri lotuta: etxebizitzaren alokairu gastuetan, etxebizitzaren mantenu gastuetan, mailegu hipotekarioen amortizazioan eta konponketa eta etxebizitzaren egokitzapenetan.

2.003. urtean GLL-en % 90-a lau atal hauetan xahutu zen. Zera azpimarratuaz, kopuru honen % 61,3-a etxebizitzaren alokairua ordaintzeko erabili zela.

¿Etxebizitzen beharrei lotutako gastua nola gehitu da? GLL-ak martxan jarri zirenetik, etxebizitzen alokairuari aurre egiteko gastua 14aldiz gehitu da.

Gaur egungo egoeraren diagnostikoa: Eusko Jaurlaritzan eskuduna den sailean egiten den ausnarketa eta azterketaz gain, Autonomi Elkarteko hiru hiriburuetakako ordezkari, Eudel –eko ordezkari eta Arabako Foru Aldundiko ordezkariekin Batzorde bat osatzen da jarduteko irizpideak ezartzeko eta dirulaguntzak kudeatzeko.

Ondorioak: GLL-ak kezkatzeko moduko dimentsioa hartzen ari dira. Batez ere etxebizitzaren beharrari aurre egiteko. Eskumena duten erakundeek zenbait oinarrizko beharrerik erantzunik ez emateak egiten du GLL-ak gabezi hauen erantzun normalizatu bihurtzea eta aldizkako laguntza honek egoera kronifikatu egiten du.

Kezkagarria da baita ere Udalek ez dutela irizpide bateraturik erabiltzen eta zenbait kasutan laguntza hauen onuradunen etxebizitzak ez dira kontrolatzen, eta ondorioz sortzen dira legezkoak ez diren ostatuak, logelen alokairuak eta zenbait praktika espekulatzaila.

GLL-ak aldizkako izaera duten laguntzetan bilakatzeak zera dakar etxebizitzen beharra asetzeko era normalizatu bihurtzea. Egiturazko izaera duen arazoa estaltzea GLL-en aurrekontuaren % 80-a zuzentzen da.

GLL-ek ezin dute inmigrazioaren arazoa konpondu ez eta ere, alokairuan ematen diren etxebizitza sozialen urritasunarena. Harrera zerbitzuak martxan jartzea da beharrezkoa gizarteratzea bultzatzeko.

Erakundeen erantzuna:

Batzorde Teknikoaren ikerketa eta azterketaren ondoren luzatu den Aginduak, Gizarteratzearen Sektoreko Batzorde Iraunkorraren manamenezko aldeko txostena izan du, ahobatez onartua. Batzorde honetan Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta 19 erakunde eta elkarte daude ordezkaturik eta gehiengoa duten lau sindikatu.

Agindu honen helburuetako bat metatzearen aurka egitea izan da.

Hilabeteko gehiengo kopurueri dagokienez, 2.004ko Aginduak 2.003-koan ezarririko mugak ez ditu murrizten, alderantziz baizik, etxebizitza bakoitzerako ezarririko 270 €ko muga gainditzeko aukera ematen du.

2.004ko Aginduaren balantzea 10.000 biztanletik gorako 41 udalerritan egin den presazko alderaketaren ondoren hau izan da: 29-retan ez da aldaketa nabarmenik izan, gainerakoek diote logelen alokairu formulak murrizketa izan duela.

PSOE, EAJ eta E.A-ren artean eztabaida sortzen da PSOE-k aurrekontuak atal honetan murriztu egin direla dio, PNV-k Eusko Jaurlaritzak aurrekonturik ez duela onartu dio eta E.A-k GLL-en % 81 etxebizitzaren beharrak asetzeko erabiltzen denez arazoa etxebizitzena dela dio.

IZUSTARRIK dagokion hitz txandan GLL-ak Eusko Jaurlaritzan ardura direla dio, aurrekontuak onartuak izan edo ez.

Xehetasun bat egiten dute, Erakundeek ez dutela gastatzen, diru publikoa, gestionatu baizik.

Azkenik ihazko urtean Zumaiko Udalak GLL kontzeptuan ematen dituen laguntza zenbait ordaindu gabe gelditu zirela diote.

Bozketa eginik bertaraturiko hamahiru zinegotzietatik aldeko sei botuz (Hiru IZUSTARRI-renak, bi PSOE-renak eta bat EB.IU-rena) eta aurkako zazpi botuz (bost EAJ-renak eta bi E.A-renak) ERABAKI DA:

EB-IU-k aurkeztutako Gizarte Larrialdiko dirulaguntzari buruzko mozioa ez onartzea.

2. – KIROL PORTUA, S.A.: EB-IU KONTSEILARI IZENDAPEN PROPOSAMENA.

Zera adierazten da 2003ko uztailaren bederatzian egin zen antolaketa buruzko Plenoan, Gorporazioan ordezkariak duten talde politiko ezberdinek organu kolegiatuetakoko ordezkariak izendatu zituztela. Hala ere, EB -IU-k, ZUMAIAKO KIROL PORTUA S.A-ko Administrazio Kontseilurako etzuen ordezkariak izendatu.

Erregimen Juridiko, Funtzionamendu eta Eraketa Arautegiaren 38. artikuluan xedatutakoa beteaz, Alkate andreak EB-IU-k aurkeztutako proposamenarekin bat, ZUMAIAKO KIROL PORTUA S.A-ko Administrazio Kontseilurako hurrengo ordezkariaren izendapena proposatzen du eta ERABAKITZEN DA:

LEHENENGOA: ZUMAIAKO KIROL PORTUA S.A-ko Administrazio Kontseilurako EB-IU-ren ordezkari JOSU AGIRREZABALAGA AZANZA Jauna izendatu, Elkarteko estatutokin bat.

Kontseilariak beraren kargua lau urteko epez egikarituko du beti ere udal legealdiarekin bat etorri behar duena.

BIGARRENGOA: Izendapenak, izendatuerei jakinarazi eta dagokien organu kolegiatuerei eta bidezko den eren formalizatu.

3.- 2003KO EKITALDIKO KONTU OROKORRA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.

Asier Esnal Albizu Hazienda Batzordeko Lehendakariak 2.003.Ekitaldiari dagokion Kontu Orokorrak, maiatzak 25eko Hazienda Batzordearen aldeko erizpena duela dio.

Ekainaren 11ko Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratu zela jendaurreko 15 eguneko agerraldi epearen hasera zabaltzeko eta denbora eta era egokian ez dela oharpenik aurkeztu.

Jarraian Udal Kontuhartzailearen txostena irakurtzen du.

Kontu Orokorrak Udaletxeko Kontuak, Musika Patronatukoak, eta Zumaia Lantzen S.A-koak barneratzen ditu eta honoko agiriaz osatzen da:

- .- Memoria.
- .- Egoera Kontua.
- .- Galera eta Irabazien Kontua.
- .- Finantziazio Taula.
- .- Aurrekontuaren Likidazioa.

Aktiboa eta aktiboaren inmobilizatuaren kopuruak ematen ditu jakitera.

Alderdieri luzaturiko hitz txandan IZUSTARRI-k 2003. ekitaldiko kontu orokorraren aurka bozkatuko duela aurreratzen du. 2.003 ekitaldiko irabazia 500 miloe pezetakoa izan delako eta kopuru hau gehiegitzat jotzen delako.

EAJ-k zera esanaz erantzuten du, hasteko kontabilitate patrimoniala eta presupuestarioa zeharo ezberdinak direla baieztatu behar da, eta bigarrenik kontabilitate batean eta bestean erabiltzen den hiztegia ez dela bere esan nahi zehatzean erabili izan.

“Remanentea” esaten denean ez du esan nahi ekitaldian lortu den irabazia, kontzeptu horretan azaltzen den kopurua gastatu egin delako eta inbertsioetan erabiliko den kopurua “Ahorro neto” izenez ezagutzen da. Bi kontzeptu zeharo ezberdinak dira.

Martxoan likidazioa onartu genuen 528.005 €ko kopuruarekin.

Emaitza hori funtsean hiru arrazoi hauengatik lortu genuen: 1.- eraikuntza eta obren zergaren atalean aurrikusiriko kopurua baino gehiago jaso genuelako 2.- Gipuzkoako ekonomiaren martxa onaren ondorioz Foru Aldundiak Udal Finantziatorako Foru Fondoaren kontzeptuan aurrikusirikoa baino gehiago banatu zigulako eta 3.- hirigintz zamen kontzeptuan ere kopuru handia jaso genuelako.

Hauek likidazioaren emaitzak dira. Emaitza hauetatik “Remanente de tesoreria” bezala azaltzen dena, hurrengo ekitaldiko aurrekontuan txertatzen da eta guztira 1.788.000 € batzen zituen. Baina kopuru honetatik portzentaia handi bat ejekutatutako gastua da.

Zalantza hauek Batzorde berri emailean azaldu behar direla azpimarratzen du eta ez Plenoan, Batzordeari edukia kentzen dielako.

Kontabilitateak markatzen dituen erizpideak jarraitzen dira beste aukerarik ez dagoelako. Eta oposizioari erraza gerta dakiokela kontu hauetaz baliatuz bere neurriko prentsa titular bat argitaratzea, borondate onez kontu hauek ulertu ordez.

IZUSTARRIK-k Hazienda Batzordean kontu orokorraren dokumentazio guztia aztertzea ezinezko dela dio eta beraieri argibideak eman behar zaizkienean gainerantzeko indar politikoeri ematen zaizkien lasaitasun berdinarekin ematea eskatzen dute.

Gaia eztabaidatu ondoren bozketa eginik, eskubidezko eta egitatezko hamahiru Udal Batzarkideen aldeko bederatzi botuz (bost E.A.J-renak, bi EA-renak eta bi PSOE-renak), abstentzio batez EB-IU-rena eta aurkako hiru botuz IZUSTARRIrenak, ERABAKI DA:

2.003-ko Kontu Orokorra onartzea, Udaletxeko Kontuaz, San Juan Egoitzakoaz, Musika Patronatukoaz eta Zumaia Lantzen Elkarte Anonimokoaz osatzen dena, jendaurreko agerraldi epea iraganik eta inolako oharpenik aurkeztu ez delarik.

4- ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA, APARTAMENDU BALIOANITZDUNEN PREZIOEI BURUZKOA, HASERAKO ONARPENA, BIDEZKO BADA.

EAJ-k zera dio, zerbitzua martxan jarri aurretik eta kobratzen hasi aurretik, Ordenantza Fiskaletan jaso behar direla apartamendu balioanitzdunen prezioak, legezko berrespena izan dezagun.

Lau motatako apartamenduak ditugu eta mota bakoitzari dagozkion prezioak ondorengoak dira:

“A” motako apartamendua: 275 €/ Hilabeteko.

“B” motako apartamendua: 290 €/ Hilabeteko.

“C” motako apartamendua: 365 €/ Hilabeteko.

“D” motako apartamendua: 530 €/Hilabeteko.

Zera gaineratzen da apartamenduen ezberdintasuna azalerako metro karratueri dagokiena dela eta mota bakoitzeko zenbait apartamendu dagoen adierazten da.

Prezio hauek Batzorde baten lanaren ondorio izan dira. Batzorde honetan parte hartu dute Diputazioko ordezkariak, Kontuhartzaileak, Gizarte Laguntzaileak eta politikoak. Batzorde “interdisciplinar” eta “interinstitucional” delako batean landutakoak izan dira.

Prezio hauek uraren gastua, gasarena eta argindarrarena barneratzen dituzte.

Haziendan eta Gizarte Zerbitzu Batzordean ere prezio hauen berri eman da.

PSOE-k gai honen berririk ez duela dio.

IZUSTARRI-k prezio horiek orokorrak diren galdetzen du.

EAJ-k Eguneko Zentruko zerbitzuagatik kobratuko diren prezioak orokorrak direla erantzuten du, estandarizatuak dira, Foru Aldundiak finkatzen dituelako, baina Apartamenduenak ez, Udal bakoitza autonomia da eta bere prezioak jartzeko eskumena dauka.

Ondoren bozketa egiten da eta eraientza lokaleko oinarriak arautzen dituen 7/1985 apirialak 2-ko legeko 47,3 h) atalean ezarririko legezko quorum-aren aldeko botoaz, hots, legezko zenbakiaren gehiengo absolutoaz,

aldeko hamabi botuz (bost E.A.J-renak, hiru IZUSTARRI-renak, bi E.A-renak eta bi PSOE-renak) eta EB/IU-ren abstentzioz, ERABAKI DA:

1.- 2.004-ko ekitaldirako Ordenantza Fiskalen aldaketa proposamena apartamendu balioanitzdunen prezioeri buruzkoa behin behingo izaeraz onartzea.

2.- Jende aurreko 30 eguneko epe bat irekitzea iragarkia GAO-an argitaratzen denetik zenbatzen hasita, erreklamazio eta oharpenak aurkeztu ahal daitezen helburuaz; aurkeztuko balira gorporazioak ebatzi beharko lituzkeelarik, aurkeztuko ez balira behin betikoz onartutzat emango dira.

5.- APARTAMENDU BALIOANITZDUNEN ERAENTZA ARAUTUKO DUEN ERREGLAMENDUAREN HASERAKO ONARPENA, BIDEZKO BADA.

Gizarte Zerbitzu Batzordeko Lehendakariak erreglamenduaren atalik azpimarragarrienak aipatzen ditu zera esanaz, guztira 16 apartamenduko baliabide baten aurrean gaudela. 60 urtetik gorako beren buruaren jabe diren pertsonen zuzendua. Zerbitzu hauek barneratzen ditu: instalazioen mantenua, amankomunak diren guneen garbitasuna, catering zerbitzua nahibadakoa, eta etxez etxeko laguntza zerbitzua ere, onuradunari badagokio.

Baliabide honen onuradun izateko gutxienez Zumaian 24 hilabetez erroldatuta egon behar da.

Onuradunak bere ezkontidea ekar dezake, nahiz eta azken honek adin eta errolda baldintzak ez bete. Edo Familiakoa duen ezindu bat ere bai.

Apartamendu hauek aparteko egoerei erantzuteko ere erabili ahal daitezke, tratu txarren kasuetarako, uholdeak, desauzioak ...

Eskaera Gizarte Zerbitzuetan egin beharko da, eta beraien diru sarreraren eta ondasunen aitortpen bat egin beharko dute.

Beraien erabilera askerako aitortutako ondarearen 6.000 € utziko zaizkie eta hileroko soldatatik Profesioarteko gutxieneko soldataren %75-a.

Alderdieri luzaturiko hitz txandan EB-IU-ko ordezkariak erreglamenduaren aurka bozkatuko duela dio, Pleno guztietan gertatzen zaion bezala informazioa azken unerarte etzaiolako iristen eta denetara ez delako ailegatzen.

Alkateak Udaletxeak daukan abiada daukala erantzuten dio eta horretara egokitzea dagokiola. Hala ere zabalik daudela berak ahal duenean argibide eta azalpenak emateko.

Ondoren bozketa egiten da, eta eskubidezko eta egitatezko hamahiru Udal Batzarkideen aldeko hamabi botuz (bost E.A.J-renak, hiru IZUSTARRI-renak, bi E.A-renak eta bi PSOE-renak) eta EB/IU-ren aurkako botuz, ERABAKI DA:

ERABAKI DA

1.- Zumaiako Apartamendu Balioanitzdunen eraentza arautuko duen erreglamendua haserako izaeraz onartzea.

2.- Gutxieneko 30 egunetako jendaurreko agerraldi epe bat zabaldu eta interesatueri audientzia eman, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasita, erreklamazio eta murtziloak aurkez daitezzen helburuaz.

3.- Erreklamazio edo murtzilorik aurkeztuko ez balitz behin betiko onartutzat hartuko da erabaki hau.

6.- UDALETXEKO BIRGAIKETA ETA ZABALTZE LANEN KONTRATUA ESLEITZEA, BIDEZKO BADA.

2.004ko apirilak 1-eko Udal Batza Osoaren akordio bidez, prozedura irekiaz, ohizko izapidaz eta Lehiaketa bidez Zumaiako Udaletxeko Erreforma eta zabaltze lanen kontratazioa arautuko duten Baldintza Juridiko Administratiboen Pleguak eta lehiaketa deitzea onartu zen.

Lehiaketaren deialdia Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratu ondoren, 2004-04-29 , denbora eta era egokian hamabi proposamen aurkeztu ziren.

Alkateak, luzaturiko deialdi publikora, aurkeztutako enpresen proposamenak, orokorrean egokiak izan direla eta finkatutako baldintzak bete dituztela dio.

Kontratuaren prezioaren hobekuntzari dagokionez, Antzibar izan da onena eta Amenabarrek gertutik jarraitu dio.

2004-05-31an egintza publikoan egin zen Proposamen irekiera ondoren, eskaintza ezberdinak, ezarritako esleipen erizpideen arabera baloratu ondoren, kontratazio mahaiak honoko akordio proposamena luzatzen du:

**PROPOSAMEN IREKIERA
ZUMAIAKO UDALETXEKO ERREFORMA ETA ANPLIAZIO LANAK
(2.004-05-31)
APERTURA DE PROPUESTAS
OBRAS DE REFORMA Y AMPLIACION DEL AYUNTAMIENTO DE
ZUMAIA
(2.004-05-31)**

**AURREKONTUA/TIPO DE LICITACION: 2.971.558,39 € (494.425.714,27 pts).
BEZ barne.**

KONTRATISTA	PREZIOA	BITARTEK OAK LANGILE,T RESNERIA	EXPERIEN TZIA PERTSONA LARENA	OBRAREN MEMORIA	PLAZO MURRIZKE TA	GUZTIR A
	55 Puntu	15 Puntu	15 Puntu	10 Puntu	5 Puntu	
C. EXISA SA	2.848.832,26 € 11,4 Puntu	7,5 Puntu	7,5 Puntu	6 Puntu	22 Hilabete 1,4 Puntu	33,8 Puntu
C. URAZCA	2.775.145 € 18,2 Puntu	7,5 Puntu	7,5 Puntu	6 Puntu	17 Hilabete 5 Puntu	44,2 Puntu
C. ANTZIBAR	2.469.453,47 € 46,5 Puntu	8 Puntu	8 Puntu	7 Puntu	18 Hilabete 4,3 Puntu	73,8 Puntu
REFORMAS Y CONTRATAS DE GIPUZKOA S.L	2.730.862,17 € 22,3 Puntu	7,5 Puntu	7,5 Puntu	5 Puntu	21 Hilabete 2,1 Puntu	44, 4 Puntu
ELECNOR	2.644.251,31 € 30,3 Puntu	8 Puntu	8 Puntu	7 Puntu	23 Hilabete 0,7 Puntu	54 Puntu

DRAGADOS OBRAS Y PROYECTOS	2.778.093,88 € 17,9 Puntu	8 Puntu	8 Puntu	6 Puntu	18 Hilabete 4,3 Puntu	44, 2 Puntu
C. MURIAS	2.667.402,79 € 28,1 Puntu	8 Puntu	8 Puntu	6 Puntu	18 Hilabete 4,3 Puntu	54,4 Puntu
C. GALDIANO	2.956.148,65 € 1,4 Puntu	8 Puntu	8 Puntu	7 Puntu	20 Hilabete 2,9 Puntu	27, 3 Puntu
REPAIR S.L	2.781.170,12 € 17,6 Puntu	8 Puntu	8 Puntu	7 Puntu	23 Hilabete 0,7 Puntu	41,3 Puntu
C. BALZOLA	2.858.568,28 € 10,5 Puntu	8 Puntu	8 Puntu	6 Puntu	19 Hilabete 3,6 Puntu	36,1 Puntu
AMENABAR	2.495.811,90 € 44 Puntu	8 Puntu	8 Puntu	7 Puntu	18 Hilabete 4,3 Puntu	71,3 Puntu
BIKAIN S.L	2.966.170,80 € 0,5 Puntu	8 Puntu	7,5 Puntu	5 Puntu	20 Hilabete 2,9 Puntu	23,9 Puntu

Zumaia 2.004ko maiatzak 31.
Kontratazio Mahaiak

Beraz, kontratua CONSTRUCCIONES ANTZIBARRI esleitzea da, bozkatuko den proposamena.

Alderdieri luzaturiko hitz txandan IZUSTARRIkoek kontratua esleitzearen aurkako botua emango dutela adierazten dute. Aurkako botua ematearen arrazoia obrarekin ados ez daudela da.

Gaia eztabaidatu ondoren bozketa eginik, eskubidezko eta egitatezko hamahiru Udal Batzarkideen aldeko hamar botuz (bost E.A.J-renak, bi EA-renak, bi PSOE-renak eta bat EB-IU -rena), eta aurkako hiru botuz IZUSTARRIrenak, ERABAKI DA:

1.- Udaletxeko birgaiketa eta zabaltze lanen kontratua CONSTRUCCIONES ANTZIBAR S.A-ri adjudikatzea 2.469.453,47 € BEZ barne, Baldintza Ekonomiko Administratiboen Plegua, Proiektu teknikoa eta aurkeztutako proposamenarekin bat.

2.- Adjudikaziodunari akordio honen berri ematea eta bide batez eskatzea, jakinarazpena jasotako egunetik kontatu eta hurrengo hamabost egun naturalen barruan, behin-betiko bermea eratu duela egiaztatzen duen agiria aurkeztu behar duela eta kontratu administratiboa egitera etortzeko deituko zaiola.

3.- Lehiaketan parte hartu duten beste guztiei akordio honen berri legezko eran ematea.

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate-Lehendakari andreak bilera amaitutzat ematen du, gaueko zortzi terdiak direnean, eta nik Idazkariak fede ematen dut.

ALKATEAK O.E

IDAZKARIAK